



Abel Muniategi Elorza

Eusko Jurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitate sailburuordea

“Garraioa eta energia ekoizpena askoz gehiago landu behar dira”

Prestige petroliontzia 2002ko azaroaren 17an hondoratu zen Galiziako kostaldetik 244 kilometrora, Afrikako portu batera 77 mila tona petrolio zeramatzala. Istripu honek eragindako marea beltzak Kantauri kostako bazter guztiak orbaindu ditu, eta itsasoko biziari kalte handiak ekarri dizkio. Fuel olioaren isurpena, dena den, ez da oraindik gutziz eten.

Eleriak hondamendiaren alderdi eta inplikazio juridikoei heldu nahi izan die, eta horretarako Euskal Herriko kostak eta biodibertsitateak jasandako kalteez hitz egin dugu izatez legegizona eta Zuzenbide administratiboko irakaslea den Abel Muniategi, Eusko Jurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitate sailburuordearekin.

1.

Lehenik eta behin, marea beltzak euskal kostan eragindako kalteen balorazio bat egitea eskatu nahiko genizuke. Zein egoeratan daude gure hondartzak eta itsasoko fauna eta flora?

Kalteak aztertzeko orduan, hiru arlo desberdin nabarmendu beharko lirateke. Alde batetik, eta itsasoari dagokionez, argi izan genuen fuelaren aurkako lanik erabakigarriena bertan planteatu behar zela, zeren eta urtarrilaren amaiera aldean eta otsailaren hasieran Bizkaiko Golko osoa fuelez josita zegoen. Lan horren ondorioz, 22.000 tona bildu ditugu itsaso zabalean. Bestetik, hondartzen kasuan, Bizkaiko eta Gipuzkoako

Foru Aldundiak eta Donostiako Udala izan dira gune horien garbiketaren arduradunak, eta 2.000 tona inguru kendu dituzte. Hirugarrenik, haitz eta itsas labarrei buruz, esan behar dugu 800 bat tona heldu direla, baina zorionez balio gutxieneko gunera; hau da, ekosistemarik gutxien dagoen gunera.

Fauna eta Flora dela-eta, eraginik larrien eta kaltegarriena hegaztiengan eman da. Izan ere, gure itsasertzera heldutako hegazti kaltetuen kopurua 3.000koa izan da, nahiz eta, adituen ustez, kopuru hori hamarkatu egin beharko litzatekeen. Beraz, Kantauri Itsaso alde honetako eragina 30.000koa izan daiteke. Beste espezie gehienak ez dira izan kaltetuak, zetazeoen eta dortoken kasuan kopuru txikiren bat kaltetua izan arren (8 izurde eta 20 dortoka).



“ Estatuko Administrazioarekin batera erabaki ditugu bakoitzak lan egiteko guneak eta, EHU/UPVrekin egindako hitzarmenean oinarrituta, astero izango dugu haitz eta itsas labarren egoeraren berri

”

2.

Zein neurri hartu ditu Eusko Jaurlaritzak kalte horien aurrean?

Goian aipatu bezala, lanik garrantzitsuena itsaso zabaleko fuel bilketa izanik, berehala hartu ziren beharrezko neurriak, hain zuzen ere baxurako flota egoera honetara egokitu eta itsasora ateratzea. Hondartzen kasuan, Diputazio biek eta Donostiako Udalak bainualdiko zerbitzuak sendotu zituzten, heltzen ari ziren fuel orbanen aurre egiteko behar besteko lan taldeak ezarriz. Horrez gain, hondartzen azaleko geruzaren azpian mareen ondorioz metatuta egon daitekeen fuel kopurua zehazteko katak egiten ari gara, eta, emaitzen arabera, baheketa sistema sakona aplikatu beharko da epe laburrean. Bukatzeko, haitz eta itsas labarrei dagokienez, boluntario talde batzuen lana alde batera utzita, Estatuko Administrazioarekin batera erabaki ditugu bakoitzak lan egiteko guneak eta, EHU/UPVrekin egindako hitzarmenean oinarrituta, astero izango dugu haitz eta itsas labarren egoeraren berri. Gure ardurapeko guneen kasuan, enpresa profesionalak erabiliko ditugu duela bi hilabete onartu-

tako protokoloaren arabera erabakitako garbiketa sistema gauzatzeko.

3.

Zer diote Biodibertsitatea babesten dute hitzarmenek horrelako isuriei buruz? Inolako lege egitasmorik ba al da horren inguruan?

Biodibertsitateari dagokionez, Europako Arztearauetatik (79/409 Hegaztiena, eta 92/43 Habitata) eta gure Natura Babesteko 94/16 Legetik sortutako naturguneak zaintzea izan zen ardura nagusia. Izan ere, gure itsasertzean hainbat figura ditugu: ZEPA, LIC, Biosfera Erreserba, RAM-SAR hezeguneak eta Biotopoak. Batez ere Urdaibai, Txingudi eta Gaztelugatxeko San Juanen jarri genuen arreta eta, zorionez, gune horien ingurumen egoerak ez du kalte handirik jaso.

4.

Lehen aipatu dituzun neurriak hartzeko eskumen edo kompetentziarik ba al zuen Eusko Jaurlaritzak?

Konstituzioaren 148 eta 149. artikuluen arabera, Eusko Jaurlaritzaren eskumena portuetara iristen da soilik, eta ez portu guztietara, baizik eta interes orokorreko ez diren portuetara bakarrik.

Beraz, gure Autonomia Erkidegoak ez du eskumenik itsasertzean uretatik lehorra eman daitezkeen isurketetan. Isurketa hauen esparrua Estatu Administrazioaren eskumeneko da.

5.

Nork erantzun behar du, zure ustez, euskal kostan sortutako kalteez?

Erantzun behar duena Estatu da. Estatu Administrazioak du egin diren kalteen erantzukizuna, ondare-erantzukizuna. Hiru arrazoiengatik: eskumena berea delako, kaltea bere zerbitzu publikoaren jardura anormalez bideratu delako, eta hondamendia ontzia hondoratu ondoren gertatu delako. Ordurako nork atxilotu zuen kapitaina? Nor zen, ondorioz, ontziaren kargu egin zena?

Halabeharrezko kasua balitz ere, Estatu Administrazioak erantzun beharko luke. Hau argi dago indarreko legedian. Beste gauza bat da Estatuak ontzi jabe eta aseguratzailearen aurka jo dezakeen edo ez.

6.

Bukatzeko, ikuspegi orokor batetik, nolakoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko uraren, airearen eta luraren osasun mailak? Zeintzuk dira zuzentzen duzun Sailordetzak esku artean dituen Plan nagusiak?

Datu hauek ezagutzeko, tresna nagusi bi ditugu. Alde batetik, 2001ean egindako Ingurumenaren Diagnostikoa eta, bestetik, 2002ko azaroan kaleratutako Ingurumen Adierazleetan oinarritutako dokumentua. Hitz bitan esateko, aurre-rapauso nabariak eman dira azken hogeitun urteotan uraren, airearen eta luraren osasun mailari dagokionez. Lehenengoaren kasuan, 2000/60 Arzteztararuak ezarritako helburuak betetzekotan gara; hau da, 2006rako, bi mila biztanletik gorako udalerrietako urek tratatuta egon behar dute. Airearen arloan, urtero egiten dira Negutegi Eftektuaren ondorioz sortutako Gasen inbentarioak (GEIS), eta ez gabiltza behar bezain fin Kyotoko Protokoloak ezarritako baldintzak betetzeko orduan. Garraioa eta energia ekoizpena dira askoz gehiago landu beharreko arloak.

Amaitzeko, aipagarria da Lurra Babesteko Legearen aurreproiektua burututa daukagula, eta laster batean eztabaidatuko dela Legebiltzarrean. Lege honetan ezartzen dira, batez ere, lur kutsa-

“ Eusko Jaurlaritzaren eskumena portuetara iristen da soilik, interes orokorreko ez diren portuetara ”

tuen inguruko problematikaren konponbiderako oinarri nagusiak.

Ezin aipatu barik utzi 2002ko ekainaren 4ean Gobernu Kontseiluak onartutako EAEko Garapen Jasangarrirako Ingurumen Estrategia (2002-2020), bertan zehazten baitira ingurumen arloan landu beharreko ildo nagusiak, hain zuzen ere maila desberdinetako erakundeak zein gizarte eragileak eragingo dituen.

Elkarrizketatzaileak: Itziar Alkorta
Koro Garmendia